

Zuzentzen duen MANTIS ikerketa-proiektu europarreko 47 bazkideak bilduko ditu bihar eta etzi MONDRAGON UNIBERTSITATEAK

2015/06/09

Orona Ideo- Innovation Cityn MANTIS ikerketa-proiektu europarraren lehen bilera egingo da bihar eta etzi. MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoa zuzenduriko proiektu horretan Europako 47 bazkidek hartzen dute parte. Horietatik 8 espainiarrak dira: MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoa, IK4-Ikerlan, IK4-Tekniker Fundazioa, Fagor Arrasate, Acciona, MSI, Goizper eta Mondragon Korporazioa.

Proiektua ECSEL Call 2014-1 programaren bitartez finantzatu da eta 30 milioi euroko aurrekontua du, orain arte unibertsitateak erabili duen diruzenbaterik handiena da. Asteakeneran proiektua garatuko duten lantaldeak eratu ziren. Ekainaren 4an, ostegunean, berriz, lantegiak egin ziren 7 lan-paketeetan, parte-hartzaileen baldintzak eta gaitasunak bateratzeko helburuz.



4.0 Industriaren alorreko proiektua da, eta hodeian industria-alorreko mantentze-zerbitzuen plataforma bat diseinatzea eta garatzea da helburua, non sentsoreek edo sistema txertatuek prozesuak monitorizatuko dituzten. Horri esker, sistema adimendunek erabakiak hartzen lagunduko dute, etorkizuneko errendimendua zenbatetsiz eta denbora gutxian izan daitezkeen akatsak aurreikusiz. Proiektuko emaitzak lau eszenatokitik baliozkotuko dira: produkzio-aktiboen mantentzean, ibilgailuen kudeaketan, energiaren produkzioan eta osasun-alorreko ekipoen mantentzean.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA, eta zehatzago bere Goi Eskola Politeknikoa, ikerketako erreferentzia bihurtuko da nazioartean, goiteknologiako Europako lau proiektutan parte hartuko baitu. Proiektu horiek sektoreen espezializazio adimendunaren europar eta euskal estrategiaren, Euskadi RIS-3 delakoaren, barruan daude kokatuta. Proiektu horri eta MONDRAGON UNIBERTSITATEA sartuta dagoen beste batzuei esker, Euskadirentzat estrategikoak diren sektoreetan ikerketaren eragile izango da unibertsitatea. Gainera, ikerketaren emaitzak euskal industrian aplikatuko dira, euskal ekonomiaren hazkundeari laguntzeko.

